

DEIALDIA

Estella-Lizarrako Udalbatzako kideei dei egiten zaie **OHIKO OSOKO BILKURARA**, datorren **2021eko apirilaren 15ean, OSTEGUNA, HAMAHIRUETAN (13:00)**, ez aurrez aurre, bideokonferentziaren bidez, honekin batera atxikitzen den Gai-zerrenda hau aztertzeko eta erabakitzeko.

Estella-Lizarra, 2021eko apirilaren 9an
El alcalde / alkatea

Elektronikoki sinatutako dokumentoa

Koldo Leoz Garciandia

Bilkurara deitu da deialdi honetako Gai-zerrendan dauden arazoei buruz eztabaidatzeko eta bozkatzeko xedez. Deialdiak Estella-Lizarrako Udalaren administrazio arrunteko akordio-proposamenak hartzen ditu barne.

Osoko bilkura hau bideokonferentziaz egiteko eta bilkura ez-presentzialaren bidez kotasunari dagokionez, Lehendakaritza honen iritziz, Udal honek 2020ko uztailaren 2ko osoko bilkuran onetsi eta 2020ko urriaren 16ko 242. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Udalaren Erregelamendu Organikoaren 125. artikuluan aurreikusitako salbuespenezko inguruabarrak gertatzen dira.

Horrez gain, Lehendakaritzaren ustez, Osoko Bilkuraren izaera publikoa, bozkatzen diren akordioen edukia eta Udal honek gaur egun dituen baliabide tekniko eta materialak kontuan hartuta, Osoko Bilkura egiteko erabiliko den sistemak behar bezala bermatzen ditu segurtasun teknologikoa, Udalbatzako kide guztiek Osoko Bilkuran parte-hartze politiko eraginkorra izatea, eta hartzen diren erabakien eztabaida eta bozketaren balioa erabat bermatzen dituela.

GAI-ZERRENDA

AKTAK IRAKURRI ETA ONESTSI

1.- 2021eko martxoaren 4ko osoko bilkuraren akta irakurri eta onetsi, bidezkoa bada.

GOBERNU-ORGANOEN KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA

2.- Alkatearen ebazpenak eta tokiko gobernu Batzordeak hartutako erabakiak, ohiko azken bilkuratek hartutakoak.

IZAERA ERABAKIGARRIA DUTEN XEDAPENAK ETA TXOSTENAK

3.- **Behin betiko onestea, bidezkoa bada**, Estella-Lizarrako Udaltzaingoaren arloari atxikitako ondasunen kalifikazio juridikoa aldatzeko espedienteak, erabili ezin diren ondasunak deklaratu.

4.- **Hasierako onespena, bidezkoa bada**. Estella-Lizarrako Udalaren 2021eko Plantilla organikoko aldaketa.

5.- Aurrekontuaren gauzatze egoerari buruzko informazioaren **berri ematea**, 2020ko abenduaren 31ko datarekin.

6.- **Hasierako onespena, bidezkoa bada**, 3. aldaketa 2021eko aurrekontuan. **Diru-sarreraren ondoriozko kredituen sorrera.**

7.- **Hasierako onespena, bidezkoa bada**, 4. aldaketa 2021eko aurrekontuan. **Kreditu berezia eta kreditu gehikuntza.**

8.- Izaera erabakigarria duten **premiazko mozioak**, halakorik bada.

MOZIO EZ ERABAKIGARRIAK

9.- **PSN-PSOeko Udal Taldeak aurkeztutako mozioa**, familiei eskola-materiala erosten laguntzeko partidak udal aurrekontuan sar daitezela.

10.- **PSN-PSOeko Udal Taldeak aurkeztutako mozioa**, Nafarroako Gobernuari eskatzeko LGTBI+ arreta-zerbitzua Estella-Lizarrara zabal dezala 2022tik.

11.- Izaera ez erabakigarria duten **premiazko mozioak**, halakorik bada.

12.- Eskariak eta galderak.